

ETXEAREN SEKRETUA

Behin bazen familia bat etxez aldatu nahi zuena, familian 4 kide ziren: Ama, Alaia deitzen zena, altua, ile lisoa, marroia eta luzea eta begi berdeak zituen, aita, Aitor deitzen zena, baxua, ile motza, lisoa baina beltza eta begi marroiak zituen, anaia, Mikel deitzen zen, altua, ile lisoa, motza baina beltza eta begi berdeduna, azkenik arreba, Miren deitzen zen, baxua, ile luzea, marroia baina lisoa eta begi marroiak zituen.

Aitak lanez aldatu zuenez beste herri batera aldatu behar izan ziren. Miren etxe berri batera joango zenez eta lagun berriak egingo zituen oso pozik zegoen, Mikel aldiz triste zegoen bere lagunak eta bera jaio zen etxea aldatu egin behar zuelako.

Herri berrira heldu zirenean eta etxea ikustean konturatu ziren etxe zahar bat zela baina bi pisukoa, lorategia ere bazuen baina belarra zaindu gabe.

Etxe barruko gelak zaharrak ziren, zorua zaharra zenez zapaltzerakoan zarata asko ateratzen zuen, orduak pasatu ziren eta lotarako ordua heldu zen, umeak beraien logelara joan ziren eta, gurasoak telebista ikusten geratu ziren egongelan eta gero lotara.

Familia guztia lotan zegoenean mamuaren txanda zen, familia asko beldurtzeko.

- Lehenengo pertsona beldurtzen Miren izango da. xuxurlatu zuen mamuak.

Mamua Mirenen logelara joan zen eta koadroa bat hartu zuen eta lurrera bota zuen, soinu arraroak egiten hasi zen adibidez:

- Buuuuuuu! Buuuuuuuu!- Egiten zuen.
Bapatean Miren txilioka esnatu zen, beldurtuta.
- Aaaaaaaaaaah!- esan zuen txilixoka.

Bere ama, aita eta anaia joan ziren Mirenen logelara ikusteko zer gertatzen zen ikusteko, Miren beldurtia zenez negarrez hasi zen eta dena kontatzen hasi zen bere gurasoei, gero denak lotara joan ziren.

Orain mamua Mikelen gelara joan zen, Mikelen logelako aulkia hartu zuen eta lurrera bota zuen Mikel beldurtzeko, Mikel beldurtu zen baina ez zuen negarrik egin ezta txiliorik atera baizik eta arnasa hartu eta berriro lotara joan zen.

Orain egongelara joan eta argia pizten eta itzaltzen hasi zen mamua, familia

osoa esnatu zuen eta aita ausarta zenez beheko pisura joan zen ikustera zer pasatzen ari zen.

Mikel, bihurria zenez, ezkutuan beheko pisura joan zen ikustera. Ama Mirenerekin geratu zen Miren lokartzen. Aitak Mikel ikusi zuen baina ez zen haserretu berarengana joan zen eta goiko pisura igo ziren, aitak hau esan zuen:

- Ez dut ezer arrarorik ikusi, bihar goizean begiratuko dut hobeto.

Denak lotara joan ziren, goizean hitz egiteko gauean gertatutakoriari. Goizean hitz egin zuten eta amak esan zuen mamu-ehiztari bati deitzeko, baina aitak esan zion bi aste itxaroteko jakiteko mamuak ea berriz egin behar zuen edo geratuko zen.

Bi asteak pasatu ziren eta mamua behin eta berriz agertzen zen, ama desesperatuta zegoen eta mamu-ehiztariari deitu zion. Hau esan zuen mamu-ehiztariak:

- Bihar joango naiz mamua ehiztatzera.

Hurrengo egunean gaua heldu zenean mamu-ehiztaria joan zen mamua harrapatzera. Mamua ehiztatzean familiak eskerrak eman zion mamu-ehiztariari. Gau hartan denak oso ongi egin zuten lo.

Hortik aurrera bizitza normala eduki zuten, lorategia zaindu, etxea erreformatu, umeak ikastolara joaten, aita lanera joan, amak ez zen lanera joaten etxetik lan egiten zuelako. Orduak pasatzerakoan umeak ikastolatik bueltatu ziren, aita minutu batzuk eta gero etorri zen lanetik eta azkenik ama. Denak bazkaldu eta gero telebista ikustera joan ziren.

Orduak eta orduak pasatu ziren eta gaua iritsi zen, gainera familiak ez zekien zer gertatuko zen gau hartan... Bapatean mamua bueltatu zen etxera handiago eta indartsuagoa.

Elenyus

